

OINARRIZKO EKINTZAK

Gure enpresan ekoizten eta saltzen ditugun produktuak erosteko **bi aukera** eskaintzen ditugu: lehenengoa; **online** bidez, gure web orrialdearen bitartez, eta bigarrena; **modu fisikoan** Ormendi Kirolak izeneko dendan.

Online: Cold & Clack webgunean sartuz, bezeroek, gustuko produktuak erosteko aukera izango dute. Horretarako, lehenik eta behin, erregistratu beharko dira, haien datuak (helbidea, izen-abizenak, eta abar) emanez.

Gero, webgunean produktu bakoitzaren prezioa eta gehigarri posibleak argi eta garbi agertuko zaizkie, hala nola, bidalketa-gastuak. Ordainketa egiteko aukera ugari izango dituzte, besteak beste: PayPal, Amazon Pay, banku-transferentzia eta Apple Pay.



Behin erosita, erositako produktua biltegitik ateratzen da, ahalik eta azkarren zure etxera iristeko. Produktuak lekualdatzeko kontratatuta daukagun enpresak, garraiobide gisa **kamioiak** erabiltzen ditu. Horren ondorioz, gure produktuak kamioez iritsiko dira bezeroen etxeetara.

Gure enpresako produktuak **European** zehar soilik saltzen dira. Espainiako bezeroek **ez** dute **bidalketa-gasturik** ordaindu beharko.



Modu fisikoan: Ormendi Kirolak izeneko denda ere, produktuak eskaintzen ditugu. Bertan, ez da gure enpresako inor lanean egongo, baina hori ez da arazo bat izango, dendako langileak gure produktuei buruz oso informatuta egongo direlako eta galdera guztiak erantzuteko prest egongo dira.

Gustuko dituzun oinetakoak edo kamisetak aukeratu ondoren, **eskudiruz** edo **banku-txartel** bidez ordaindu ahal izango dute.

Erosketa egin ostean, dendako langileek produktuaren **garantia** bat emango diote erosleari. Horrela, oinetakoekin edo kamisetarekin arazoren bat izanez gero, (taila okerra, oinetakoa hondatuta...), bezeroak produktua **itzultzeko aukera** izango du.

Bi astetik behin bidaltzen ditugu produktuak dendara. Ormendi kirolak dendako langileek arduratzen dira produktuak saltokian behar bezala kokatzeaz. Gainera, saldutako oinetako edo kamiseta bakoitzeko, Ormendi kirolak **%20ko irabazia jasotzen** du.

